



OSASUN SAILA

Adistrazio eta Finantzaketa
Sanitarioko Sailburuordetza
Farmazia Zuzendaritza

OSASUN SAILA

Administrazio eta Finantzaketa
Sanitarioko Sailburuordetza
Farmazia Zuzendaritza

"MEREZIMENDUAK ALEGATZEKO, INPRIMAKI ELEKTRONIKOA BETETZEKO ETA DOKUMENTAZIOA ERANSTEKO, EUSKO JAURLARITZAREN EGOITZA ELEKTRONIKOAREN BIDEZ FARMAZIA-BULEGOAK SORTZEKO LEHIAKETAREN ESKABIDEETAN MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK."

VITORIA-GASTEIZ, 2024KO EKAINA.

1. SARRERA

Dokumentu honetan, farmazialari eskatzaileei merezimenduak alegatzeko orduan sor dakizkiekeen galderei erantzun nahi zaie, farmazia-lehiaketaren prozedura elektronikoa haien eskura jarritako da formulario elektronikoa bidez.

Dokumentu hau bizirik dago, eta eguneratu egingo da, lehiaketan parte hartu dutenek eskatutako gaien edo argibideen beharren arabera.

2. EGOITZA ELEKTRONIKOAREN FORMULARIO ELEKTRONIKOA BETETZEA

1. Zer behar dut nire eskaeraren izapidetze elektronikoa egin ahal izateko?

Farmazia-bulegoak sortzeko lehiaketan parte hartzeko eskabidea elektronikoki izapidetzeko, **identifikazio elektronikorako bitarteko bat eduki behar da**. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak onartutako edozein ziurtagiri elektronikoa erabili ahal izango dute eskatzaileek. Onartutako ziurtagiri elektronikoa Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa izapide eta zerbitzuen atalean kontsultatu ahal izango dira (<https://www.euskadi.eus/egoitza-elektronikoa/>).

2. Nolako da formulario elektronikoa eta zein dira bere urrats nagusiak?

Eskabide-inprimakia goiko aldean adierazitako lau urratsei jarraituz beteko da. Ezin izango da urrats batetik hurrengora igaro aurrekoa bete gabe. Proba bat betetzea gomendatzen da, urratsekin ohitzeko eta sartu beharreko informazioa eta erantsi beharreko dokumentuak nola egituratu behar diren jakiteko.



Gordetzeko ikonoa agertzen den pantailetan, kargatutako datuak gorde ahal izango dituzte eta, beste une batean, izapidetzen jarraitu, dagokion ikonoaren bidez datuak berreskuratuta:



Gordetzeko ikonoak



Berreskuratzeko gordetako datuak

3. Zer hartu behar dut kontuan inprimakiaren 1. urratsean neure burua identifikatzeko?

Hasieran adierazi den bezala, identifikazio elektronikorako bitarteko bat eduki behar da formulariora sartzeko. Formularioan ematen diren harremanetarako telefonoa eta e-maila lehiaketa-prozedura izapidetzeko beharrezkoak diren abisuak bidaltzeko erabiliko dira.



Eskabidean interesdun gisa edo ordezkari baten bidez jardun dezakezu, eta hori 1. urratsean ("Identifikatu") adierazi beharko da. Era berean, lehiaketan batera parte hartu nahi duten hainbat farmazialari egon daitezke, eta urrats honetan interesdun gisa gehitu beharko dira:

Honen izenean ari da *

Pertsona/entitate interesdun gisa espedientearen: Ordezkaria:

Espedientearen pertsona interesdunak

Eskabide batean interesdun bat baino gehiago daudenean, eman beharreko jarduketak, lehenbiziko pertsona interesdunarekin egingo dira (39/2015 Legea, 7. artikulua, Interesdunen aniztasuna)

+ GEHITU KOPIATU ALDATU EZABATU

Identifikazio-dokumentua	Zenbakia	Izena	Lehen abizena	Bigarren abizena	Sexua
NAN	99999990S	CIUDADANO	FICTICIO	ACTIVO	Gizona

Bi farmazialarik eskaera bakar baten bidez lehiaketan parte hartzea erabakitzen badute, adierazi behar da eskabidea aurkeztu eta elektronikoki sinatzen duen farmazialaria eskatzaile gisa agertuko dela, eta bestea, berriz, bigarren farmazialari interesdun gisa. Lehenengo eskatzaileak jakinarazpenak jasoko ditu eta formularioan eskatutako izapide guztiak egingo ditu, bien ordezkari gisa. 3. urratsean, lehenengo farmazialariak bigarrenarekiko duen ordezkari-tza adierazten duen dokumentu bat erantsi beharko da, biek sinatuta eta dagozkien NANen kopiekin.

4. Zer hartu behar dut kontuan 2. urratsean datuak betetzerakoan eta lehiaketako merezimenduak alegatzerakoan?

Datu orokorrak sartu ondoren, 2. urratsa eskaera-inprimakia betetzea eta merezimenduak alegatzea da.

Osasun Sailaren ordainketa elektronikoen pasabidean ordaindu beharko da tasa (<https://www.euskadi.eus/osasun-alorreko-tasakinformazioa/osasun-alorreko-tasak/web01-a2farma/eu/#1833>). Tasaren kontzeptua hau da: "Farmazia-bulegoak. Sortzeko eskaera ", eta tasa 115,49 €koa da. Ordainagiria lehiaketan parte hartzeko eskabidearen 3. urratsean aurkeztu beharko da. Formularioan honela agertzen da:

Ordaindu duzu tasarik? * Bai Ez

Tasa

Gogoratu Farmazia-bulego bat sortzeko eskaera egiteko nahitaezkoa dela dagokion tasa ordaintzea. Tasa hori Osasun Sailaren ordainketa-pasabidearen bidez ordaindu behar da. Esteka hau erabili ahal da horretarako: [link](#).

Garrantzitsua: Gogoan hartu eskaera honen hurrengo urratsean ordainagiria erantsi beharko duzula.

Batera aurkezten diren farmazialari eskatzaile bat baino gehiago badago, erantzun positiboa eman beharko zaio beherago adierazitako galderari. Baiezko erantzunak merezimenduen alegazioa hedatuko du bigarren farmazialariarentzat:

FARMAZIALARI ESKATZAILEAREN DATUAK Ezkutatu ▲

Beste farmazialari interesdun batekin aurkezten da. Horrela bada, gogoratu pertsona hori interesdun gisa gehitu behar duzula espedientearen, 1. urratsean (Identifikazioa).

Ez Bai



Jarraian, farmazialariaren lizentziatura/gradua egiaztatzeko modua adierazi behar da, eta nahitaezko erantzukizunpeko adierazpena egin behar da, orain edo lehiaketaren deialdia egin aurreko 12 hilabeteetan farmazia batek izan dezakeen titulartasunari dagokionez. Aurreko 12 hilabeteetan farmazia baten titularra izan bazara, eskualdatzeko edo itxeko modua egiaztatu beharko duzu, dokumentazioa aurkeztuta, 3. urratsean.

Merezimenduak alegatzeko, garrantzitsua da zenbait puntu kontuan hartzea:

- Oro har, alegatutako merezimenduaren eta hori egiaztatzeko aurkeztutako dokumentazioaren artean desadostasunik atzemanaz gero, merezimendua ez da zenbatuko.
- Behin-behineko puntuazioen aurkako erreklamazioak aurkezteko epean, alegatutako baina behar bezala egiaztatu ez diren merezimenduak bakarrik zuzendu ahal izango dira. Horrek esan nahi du ezin izango direla inola ere gehitu lehiaketan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epearen barruan dokumentu bidez alegatu eta egiaztatu ez ziren beste merezimendu batzuk.

Merezimenduak alegatu aurretik, oso garrantzitsua da 24/2004 Dekretuan (2004/02/18ko EHAA, 33. zk.) jasotako merezimenduen baremoa kontsultatzea. Eskabide-inprimaki elektronikoa alegatutako merezimendu guztiak formularioari erantsitako dokumentazioaren bidez egiaztatu beharko dira, 3. urratsean.

Hauk dira merezimenduak alegatzeko atalak, eta aipatutako 24/2004 Dekretuak ezartzen du horien sailkapena:

24/2004 Dekretuko merezimenduen baremoaren arabera alegatutako merezimenduen zerrenda		
1_Lanbide-jarduna (soilik azken 15 urteetan baloratzekoak, deialdia EHAAn argitaratu zenetik)		
1a_Farmazialari farmazia-bulegoan.		
1b_Farmazialari gisa honako hauetan: osasun-administrazioa, ospitaleko farmazia-zerbitzuak, farmazia-banaketa, farmazia-laborategiak, etab.		
1c_Farmazialari beste eremu batzuetan.		
2. Irakaskuntza (azken 10 urteak, deialdia EHAAn argitaratu zenetik)		
2a_Farmaziako lizentziatura/graduoko ikasleen tutoretzapeko praktiken tutore gisa.		
2b_BAFa egiten duten ikasleen praktiketako tutore gisa.		
2c_Katedraduna edo unibertsitateko irakasle titularra izatea osasun-zientzien edo farmazia-produktuekin lotutako gaien jakintza-arloetan.		
2d_Arreta farmazeutikoarekin lotutako gaien buruzko ikastaroetako irakasle gisa, dagokion etengabeko prestakuntzako batzordeak egiaztatuta.		
3_Erakunde farmazeutikoarekin lotutako argitalpenak (azken 10 urteak, deialdia EHAAn argitaratu zenetik).		
3a_Liburua ISBNrekin argitaratzea.		
3b_Artikulua aldizkarian argitaratzea ISSNrekin.		
3c_Artikulua aldizkarian argitaratzea ISSNrik gabe.		
3d_Ponentzia, posterra edo ahozko komunikazioa bilera edo biltzar zientifikoetan.		
4_Gaioondoko prestakuntza		
4a1_Unibertsitateko graduondoko prestakuntza: tesina edo farmaziako lizentziaturako		



gradua.
4a2_ Unibertsitateko graduondoko prestakuntza: Ikasketa aurreratuen diploma
4a3_ Unibertsitateko graduondoko prestakuntza: Farmazian doktorea
4a4_ Unibertsitateko graduondoko prestakuntza: arreta farmazeutikoarekin zerikusia duten unibertsitateko berezko tituluak (masterra, espezialista).
4b1_ Unibertsitatez kanpoko graduondoko prestakuntza: Farmazialari espezialistaren tituluak, Ospitaleko Farmazian, Farmazia Industrial eta Galenikoan, edo Botika eta Drogen Azterketa eta Kontrolean.
4b2_ Unibertsitatez kanpoko graduondoko prestakuntza: farmazialari espezialista beste modalitate batzuetan.
4b3_ Unibertsitatez kanpoko graduondoko prestakuntza: arreta farmazeutikoarekin lotutako gaietan egiaztatutako etengabeko prestakuntza (deialdia EHAAn argitaratu zenetik azken 10 urteetan).
5_ Euskera
6_ Europar Batasuneko Hiriak

4.1 taula

5. Zer hartu behar dut kontuan 3. urratsean alegatutako merezimenduak egiaztatzen dituzten dokumentuak eransteko?

Hirugarren urratsean erantsi beharreko frogagiri digitalizatuak 3. urratsean adierazten dira, eta 2. urratsean alegatutako merezimenduen arabera sortzen dira.

Jardun profesionala "*Lan Bizitzaren Txosten (LBI) oso eta eguneratu baten bidez*" egiaztatu behar da. Farmazialari gisa jarduteko (Gizarte Segurantzako 01 KT) argibiderik behar bada, beste autonomia-erkidego, herrialde, etab.etan izan delako, dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko da, hau da: elkargo profesionalekoak, kontsuletxeakoak, enpresakoak, erakundekoak eta abarrekoak, dagokionaren arabera.

Balorazio-lana errazteko, dokumentazioa 6 "pdf" dokumentutan biltzea gomendatzen da, merezimenduen baremoko sei atalen arabera (ikus 4.1 taula) eta 24/2004 Dekretuan jasotako ordenari jarraikiz. Horrela, balorazioak azkarrago eta modu eraginkorragoan egingo dira.

6. Non jarrai dezaket lehiaketa-prozedura eta non ikus dezaket balorazio-batzordeak aurkeztu dudako dokumentazio guztia?

Eskabidearen ondorengo izapideak egoitza elektronikoa egingo dira, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko "Nire karpeta" atalaren bidez. Bertan, izapideak jarraitu ahal izango dira, eta eskatzaile bakoitzak eta horretarako sortutako balorazio-batzordeak aurkeztutako dokumentuak ikusi.

Azkenik, farmazia-lehiaketei buruzko informazio gehiago dago esteka honetan: <https://www.euskadi.eus/farmazia-antolamendua/web01-a2farma/eu/>.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekaina.